

# Egutegia

## URTARRILA

tailerra: ± ORDRE  
**Urtarrilaren 10etik Otsailaren 5era**  
 Koordinaketa:  
**JEAN-LUC MOULÈNE & VINCENT LABAUME**

## MAIATZA

mintegia: KULTURA ETA GIZARTEA  
**Maiatzaren 16tik 19ra**  
 Koordinaketa: **MIKEL IRIONDO**  
 Hizlaria: **REMO BODEI**

tailerra: ARTEA & ELEKTRIZITATEA  
**2000ko Maiatzetik 2001eko Ekainera**  
 Koordinaketa: **FUNDACIÓN RODRÍGUEZ**

## EKAINA

tailerra:  
 DOS ENTRECERPOS Y MUGATXOAN HIRU  
**Ekainaren 1etik 30era**  
 Koordinaketa: **ION MUNDUATE & BLANCA CALVO**

tailerra: LITOGRAFIA 1  
**Ekainaren 1etik 30era**  
 Koordinaketa: **DON HERBERT**

mintegia: KULTURA ETA GIZARTEA  
**Ekainaren 20tik 23ra**  
 Koordinaketa: **MIKEL IRIONDO**  
 Hizlaria: **HELENA BÉJAR**

## UZTAILA

tailerra: LITOGRAFIA 2  
**Uztailaren 3tik 28ra**  
 Koordinaketa: **DON HERBERT**

## ABUZTUA

tailerra:  
 BIZI GAREN ESPAZIOAREN ERALDAKETAK  
**Abuztuaren 23tik Irailaren 29ra**  
 Koordinaketa: **ANGEL MARTÍN**

tailerra: INFORMATIKA GRAFIKOA  
**Abuztuaren 7tik 10era**  
 Koordinaketa:  
**MUSICAL SIROPE ELKARTEA (TXARLY BROWN)**

tailerra: MUSIKA ERAMANGARRIA  
**Abuztuaren 7tik 10era**  
 Koordinaketa:  
**MUSICAL SIROPE ELKARTEA (PEZ ETA MAKALA)**

## IRAILA

mintegia:  
 CUERPO Y CIUDAD EN LA ERA INFORMACIONAL  
**Irailaren 4tik 8ra**  
 Zuzendaria: **JAVIER ECHEVERRÍA**  
 Koordinaketa: **ANDONI ALONSO**

## URRIA

tailerra: POWER POINT REVOLUCIÓN!!!  
**Urriaren 2tik 31ra**  
 Koordinaketa: **ASIER PÉREZ GONZÁLEZ**

tailerra: SERIGRAFIA  
**Urriaren 2tik Azaroaren 30era**  
 Koordinaketa: **PEPE ALBACETE**

## AZAROA

mintegia: ± TV  
**Azaroaren 2tik 30era**  
 Koordinaketa: **ALEXIS VAILLANT & FRANCK LARCADE**

## AVANCE 2000

# Calendario

## ENERO

taller: ± ORDRE  
**Del 10 de Enero al 5 de Febrero**  
 Coordinación:  
**JEAN-LUC MOULÈNE & VINCENT LABAUME**

## MAYO

seminario: CULTURA Y SOCIEDAD  
**Del 16 al 19 de Mayo**  
 Coordinación: **MIKEL IRIONDO**  
 Ponente: **REMO BODEI**

taller: ARTE & ELECTRICIDAD  
**De Mayo 2000 a Junio 2001**  
 Coordinación: **FUNDACIÓN RODRÍGUEZ**

## JUNIO

taller:  
 DOS ENTRECERPOS Y MUGATXOAN HIRU  
**Del 1 al 30 de Junio**  
 Coordinación: **ION MUNDUATE & BLANCA CALVO**

taller: LITOGRAFÍA 1  
**Del 1 al 30 de Junio**  
 Coordinación: **DON HERBERT**

seminario: CULTURA Y SOCIEDAD  
**Del 20 al 23 de Junio**  
 Coordinación: **MIKEL IRIONDO**  
 Ponente: **HELENA BÉJAR**

## JULIO

taller: LITOGRAFÍA 2  
**Del 3 al 28 de Julio**  
 Coordinación: **DON HERBERT**

## AGOSTO

taller:  
 TRANSFORMACIONES DEL ESPACIO HABITADO  
**Del 23 de Agosto al 29 de Septiembre**  
 Coordinación: **ANGEL MARTÍN**

taller: INFORMÁTICA GRÁFICA  
**Del 7 al 10 de Agosto**  
 Coordinación:  
**MUSICAL SIROPE ELKARTEA (TXARLY BROWN)**

taller: MÚSICA PORTÁTIL  
**Del 7 al 10 de Agosto**  
 Coordinación:  
**MUSICAL SIROPE ELKARTEA (PEZ Y MAKALA)**

## SEPTIEMBRE

seminario:  
 CUERPO Y CIUDAD EN LA ERA INFORMACIONAL  
**Del 4 al 8 de Septiembre**  
 Dirección: **JAVIER ECHEVERRÍA**  
 Coordinación: **ANDONI ALONSO**

## OCTUBRE

taller: POWER POINT REVOLUCIÓN!!!  
**Del 2 al 31 de Octubre**  
 Coordinación: **ASIER PÉREZ GONZÁLEZ**

taller: SERIGRAFÍA  
**Del 2 de Octubre al 30 de Noviembre**  
 Coordinación: **PEPE ALBACETE**

## NOVIEMBRE

seminario: ± TV  
**Del 2 al 30 de Noviembre**  
 Coordinación: **ALEXIS VAILLANT & FRANCK LARCADE**

[www.gipuzkoa.net/arteleku](http://www.gipuzkoa.net/arteleku)

# ur-zara

**urrezko sekzioa:** Urrerko sekzioa 1494. urtean aurkitu zuen Luca Pacioli matematikariak bi dimentsioen arteko proportzio ideal bezala, eta gero Leonardo da Vinci ere halaxe jaso zuen. Urrerko sekzioak bi zatitan banantzen du lerro bat, zati bat handiagoa eta bestea txikiagoa, eta bien arteko proportzioa 3:5, 5:8, 8:13, ... izaten da. Kubistek ere proportzio-erlazio matematiko hau erabili zuten 1912ko urriaren 30ean Pariseko “La Bo'tie” galerian egindako erakusketa handiari izena jartzeko. “La Section d'Or” erakusketa hura, Pariseko Udazkeneko Aretokoarekin batera, pintura kubistaren oso erakusketa garrantzitsua izan zen historikoki; izan ere, Braque eta Picasso kenduta, garai hartako pintura kubistaren beste ordezkari guztiak bildu zituen bertan, besteren artean, Juan Gris, Léger, Gleizes, Metzinger, Delaunay, Marcoussis, Marcel Duchamp, Villon eta Duchamp-Villon.

**urtinta:** Grabatuaren teknikako prozedura bat da, kolorea aplikatzeko modu bat, itxuraz urkolorearen inpresioa ematen duena. Inpresio-teknika honetarako, kolofonia-hautsa botatzen zaio plantxari eta, beroaren bitartez erretxina finkatu ondoren, azidotan sartzen da maila desberdineko errealdia emateko. Pintura modernoaren barruan Picasso eta Rouault izan ziren urtintaren espresio-ahalmenak aberastu zituztenak.

**videotape:** Baliabide artistikoen zabalpenari bestelako ikuspegi garrantzitsua ireki zaio telebista erabiltzen hasi zenetik, videotapeak beste tartekorik gabe egiten baitu posible denboraren igarotza, mugimendua, espazioaren paisaje bateko zabalera eta ikusmena errealtatearen konfigurazioko xehetasun zehatzetan kontzentratzeko egintza erreproduzitu ahal izatea arte-konzeptu baten arabera. Oso bereziki baliabide hori erabili izan dute beren lanetan land-arte, arte demonstratzaileko eta arte kontzeptualeko artistek.

**vienako eskola:** Jugendstil-en hurbileko arte-modu surrealista bat errepresentatu zuen eskola vienarrak azkeneko urteetan, eta eskola horretako artista ditugu Rudolf Hausner, Ernst Fuchs, Erich Brauer, Wolfgang Hutter eta Anton Lehmden. 1945etik aurrera eta gerrako laztura izugarriaren aurrean, artista hauek saiatu ziren kaosaren kontra —ametszko aluzinazio ideal barrokoak eginez— bisionario moduan esperimentatutako natura metafisiko bat jartzen, apoteosi kosmiko himniko-bitala gogorarazten zuena. Artistak ordea, ez dira beren figuretako pseudomundu irudikeriazkoan galtzen, eta aldiz, behin idilioa pasa ondoren, koadro manieristetan azaltzen dute beren barneko munduaren eta kanpoko mundu errealearen arteko kontraesana. Hausner-ek bere “Adan-zeinahi gizon” irudi mitologikoan gorputz eman zion diskrepantzia horri, eta irudi horretan, denborarik gabeko eredu moduan, Niak berak mundu errealearen eta ametszko munduaren artean izandako disoziazioa mamitu nahi izan zuen. Kontzientzia disoziatu honek estilo manieristan aurkitu zuen bere adierazpen-hizkuntza, manierismo horrek, izan ere, nabarmentasun probokatzaille batekin, agindutako paradisu terrenal mitikoaren izaera gezurretaoari egiten baitio erreferentzia.

**warenästhetik** (Kontsumoko artikuluen estetika): Kontzeptu hau Wolfgang Fritz Haug soziologoak itxuratu zuen kontsumoko artikuluen produkzioan dauden inplikazio ekonomikoei buruz egindako bere sozioazterketa kritikoan. 1971an argitaratutako Kritik der Warenästhetik lanean gizakiaren sentimenezko eta dastamenezko subjektuaren mekanismoa aztertu zuen Haug-ek diseinuak markatzen duen artikuluen edertasunaren bitartez. Gauzei itxura estetiko zehatza ematen zaie, aurkezpen estetiko eder bat, sentimenei ere inpresio atsegina sortzen diena. Liluramen estetiko

hori manipulatu egin daiteke merkantzia horrek bere balio ekonomiko eta kontsumo-balioarengatik merezi duenaren gainetik dagoen edukitze-desira sortzeko, hain zuzen ere erosteko afan hori sentimenean sortzen den efektuan bakarrik kontzentratzen baita publizitatearen indarrez eta diseinuaren eraginez.

**Werkbund:** Deutsche Werkbund izenekoa (gremio-elkarte aleman bat) Munichen sortu zen 1907. urtean, diseinadorerik nabarmenduenen elkarte elitista bezala eta asmotan hartuz prototipo praktikoez baliatuz modelatu industrialaren praktika orokorra sustatzea. Elkarte horri publizitate handia egin zioten eta eragin handia izan zuen ondorengo diseinu-eskoletan eta Bauhauseko arkitektoen ideietan.

**xilografia:** Erliebeko inpresio-prozedura honetan, hasteko egurrezko ohol zapal batean egiten da marrazkia; gero egurra tailatu eta hustu egiten da gubiekin, inpresioan beltzez atera behar duten parteak bakarrik utziz hustu gabe. Horrela ateratzen den galga edo plantxa arrabol batekin tintatzen da eta presio bidez inprimatzen da bustitako paper baten gainean eta prentsa bat erabiliz. Honela ateratzen da grabatua, inprimatutako kopia bezala. Elkarren osagarri diren plantxa horietako bat baino gehiago erabiliz, kolore bakoitzerako plantxa bana alegia, koloretako grabatu bat egin liteke.

**zaldun urdina:** Ikus Blaue Reiter, Der

**zarata-musika:** Futuristek musikaren arloan egin zituzten lan esperimentalak “zarata-arte” izenez deitzen zituzten, hain zuzen ere, ordurarte musika esaterakoan ulertzen zen kontzeptutik erabat aldendu nahi zutela adierazteko. Arte-materiala ez zen jadanik musikako eskalaren tonuetara mugatzen, baizik eta hiriko hots eta zaratak, makina, garraibide eta fabriketakoak hartu eta haiek adina balioko espresio bide bezala aldarrikatzen zituzten. “Intonarumori” izenekoarekin (zarata-organoa) egin zuen Russolo-k 1913an lehenengo saioa, delako ideia horientzat egokia litzatekeen soinutresna bat sortzeko asmoarekin. Futuristen zarata-musika osagai garrantzitsua izan zen Zuricheko dada errepresentazioetan, eta “poesia aldiberekoaren irakurketa-arratsal-deak” deitutakoetan “medio desberdinen arteko” akoplamendu bat probatu zuen dantzaren artearekin, antzezki-zunarekin eta adierazmen literarioarekin. Musika modernoak aurrera jarraitu du eboluzio horrekin eta soinu-erepertorio berri bat sortzeko sakonketa-lanak egin ditu; ondorioz, biak ere elektromagnetikoak diren erregistro tonalari eta elaborazio tinbrikoari esker, asko aberastu ahal izan da “zarata-musika” (Cage, Stockhausen, Kagel, Paik, Ferrari). ■